

IKASLEAREN GIDA:

**PROGRAMAKETA PSIKOSOZIALA:
GIZARTE ZERBITZUAK ETA
KOMUNITATEA**

**IKASTURTEA:
2013-2014**

TITULAZIOA: GRADUA PSIKOLOGIAN

ZENTRO: PSIKOLOGIA FAKULTATEA
IKASTURTEA: 2013-2014

IKASLEAREN GIDA

1. IRAKASGAIAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

IZENA: PROGRAMAKETA PSIKOSOZIALA: GIZARTE ZERBITZUAK ETA KOMUNITATEA

KODEA: 25077

IKASTURTEA: 2013-14

IRAKASGAI MOTA = Hautazkoa

ECTS Kredituak: 6

kurtsua: 3. edo 4.

LAUHILEKOA: 1

Bete beharrekoak:

Gomendioak: Eskuhartze psikosozialeko minorreko gainontzeko ikasgaiak aldi berean ikastea

2. IRAKASLE-TALDEAREN DATUAK

IZENA: AINARA ARNOSO MARTÍNEZ

ZENTRO/SAILA: Gizarte psikologia eta portaera zientzien metodologia saila

ALORRA: Gizarte psikologia

BULEGOA: 2D10

e-posta: ainara.arnoso@ehu.es

TLF: 943015647

URL WEB:

IZENA: IGNACIA ARRUABARRENA MADARIAGA

ZENTRO/SAILA: Gizarte psikologia eta portaera zientzien metodologia saila

ALORRA: Gizarte psikologia

BULEGOA: 2D9.2

e-posta:
ignacia.arruabarrena@ehu.es

TLF: 943018533

URL WEB:

IZENA: JOAQUÍN DE PAÚL OCHOTORENA

ZENTRO/SAILA: Gizarte psikologia eta portaera zientzien metodologia saila

ALORRA: Gizarte psikologia

BULEGOA: 2D9.2

e-posta: joaquin.depaul@ehu.es

TLF: 943018308

URL WEB:

3. IRAKASGAIAREN BERARIAZKO ETA ZEHARKAKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Irakasgaiaren berariazko gaitasunak
1	Esku-hartze psikosozialaren eredu teorikoen eta aplikazio eremuen ezagutza.
2	Zerbitzu Sozialen egitura, helburu eta antolamenduaren ezagutza.
3	Gizarte dinamizazioaren estrategien oinarriko elementuen ezagutza.
4	Arazo sozialen irakurketa ekosistemiko bat egiteko gaitasuna izatea, errealitate sozialaren analisi kritiko bat sustatuz.
5	Premia edo beharrianen ebaluazio tekniken ezagutza.
6	Helburuak zehazteko eta esku-hartze psikosoziala planifikatzeko gaitasuna.
7	Proposamenak zein txosten teknikoak lantzeko eta jendaurrean aurkezteko gaitasuna.
8	Ikuskatzaile baten premia dakarren zalantza etikoen aurrean erabakiak hartzeko gaitasuna.
9	Esku-hartze psikosozialari buruzko informazio iturri desberdinak erabiltzeko eta informazio hau eskuratzeko beharrezko jakituria azaltzea.

4. PROGRAMA

4.1. PROGRAMA TEORIKO ZABALA

1. Gaia. Esku-hartze sozialaren psikologia

- Esku-hartze sozialaren objektua
- Ongizate soziala eta bizi kalitatea
- Premia eta arazo sozialak
- Esku-hartze sozialaren definizioa eta helburuak.

2. Gaia. Marko eta eredu teorikoak

- Eredu Ekologiko-Sistematikoa
- Komunitatea psikologiaren ekarpenak
- Laguntza sozialean oinarritutako ereduak
- Konpetentzien garapenean oinarritutako ereduak

3. Gaia. Esku-hartze estrategiak

- Esku-hartze eremuak: Esku-hartze testuinguru eta eremuak/kolektiboak
- Estrategia prebentiboak eta errehabilitazioa
- Psikologoaren papera: Funtzioak eta berezitasunak

4. Gaia. Premien diagnostiko eta ebaluazioa

- Esku-hartze psikosozialaren prozesuaren ikuspuntu orokorra
- Premien ebaluazioa: Estrategiak, teknikak eta instrumentuak

5. Gaia. Programen diseinu eta ezartzea

- Programen diseinua
- Programen ebaluazioa

6. Gaia. Zerbitzu sozialen organizazioa eta funtzionamendua

- Babes sozialaren sistemaren ikuspegi orokorra. Babes sozialaren ereduak
- Espainiako zerbitzu sozialen garapena
- Euskal Autonomi Erkidegoko zerbitzu sozialen organizazio eta funtzionamendua
- Hainbat zerbitzu sozialetako esku-hartzeen azterketa orokorra (adigabetuen babesa, pertsona helduak, emakumea, etorkinak,...)

Programa teorikoko edukiak klase magistraletan garatuko dira, irakurgai gehigarriekin osatuz.

4.2. PRAKTIKA EGITASMOA

1 Praktika: Esku-hartze psikosozialaren programaren diseinua.

Talde txikietan buru beharreko praktika. Ikasturtean zehar, ikasleak gehienez lau pertsonaz osaturiko lan taldeetan, esku-hartze psikosozialaren programaren diseinuan lan egingo dute. Gaia, irakasle taldeak proposaturiko zerrendatik hautatuko dute. Programaren diseinuaren oinarritzko atalak aurretiaz landuak izango dira ordu teorikoetan. Bestalde, ikasleak Moodle-n bidez lana burutzeko eman beharreko pausoak zehazten dituen *Ariketen aurkibidea* izango dute eskura.

Lana hurrengo ataletan banatuko da:

1. Lan taldeen eraketa eta gaiaren aukeraketa.
2. Datu base zein dokumentazio iturri espezializatuen bilaketa bibliografiko orokorra.

Egindako bilaketaren inguruko ahozko aurkezpena klasean.

3. Esku-hartze psikosozialaren programak izango dituen atal desberdinen lanketa:
 - a. I eta II ariketa: Programaren egokitasunaren azalpena eta landu beharreko beharrizan/arazoearekin harremandutako eredu esplikatiboen berrikuspena.
 - b. III ariketa: Beste testuinguru batzuetan burututako antzeko programen diseinuen azterketa.
 - c. IV eta V ariketa: Helburuak zehaztu eta programa ze biztanleria jasotzen duen definitu.
 - d. VI ariketa: Esku-hartzeak izango duen prozeduraren deskribapena.
 - e. VII ariketa: adierazleen deskribapena eta programa ebaluatzen diseinua.

Ariketa bakoitzak izango duen prozedurak ondorengo eskema jarraituko du:

1. Ariketaren lanketa.
 - a. Gelakide eta irakaslearen aurrean aurkezpena.
 - b. Idatzizko aurkezpena: Lana Moodle plataforman izango den foroan eskegiko da. Irakasleak zuzenketa eta iradokizunak burutuko ditu aipatutako foro honen bitartez.
 - c. Ahozko aurkezpena: lana klasean ere aurkeztua izango da, non ikasleek irakasle zein gelakideen feedback-a jasoko duten. Jasotako feedback-en oinarrituz, akats desberdinen zuzenketa bideratu ahal izango dute ikasleek. Aldi berean, berrikuspen berriak eskatu ahal izango dituzte foro zein tutoretzen bitartez. Bestalde, tailer orduz ere baliatu daitezke ariketa hauek aurrera eramanez ahal izateko.
4. Ikasturtearen bukaeran, lan talde bakoitzak idatzizko lan bat aurkeztu beharko du, non bere osotasunean biltzen duen egindako lan guztia. Aldi berean, ahozko aurkezpen bat burutuko dute zentroko irakasleek osatutako epaimahai baten aurrean.

Lehenengo praktika 4,6,7,8 eta 9 gaitasunak lantzeko diseinatua dago.

2.Praktika: Lehenengo praktikarako aukeratutako gaiko esku-hartzean zuzentzen diren zerbitzu eta komunitate baliabideetatik informazio bilketa (*zerbitzu sozialak barne*).

Talde praktika. Talde bakoitzeko partaideei proposatuko zaie lehenengo praktikan aukeratutako gaia lantzeko gure inguruan dauden eta beharrezkoak diren zerbitzu eta baliabideak identifikatzea. Era berean, informazioa eskuratzea zerbitzu hoiek dituzten helburuen eta funtzionamenduaren inguruan. Kurtso bukaeran, ikasleek taldeka, txosten labur bat aurkeztuko dute praktikaren inguruan.

Bigarren praktika, bigarren konpetentzia lantzeko diseinatua dago.

3. Praktika: Esku-hartze psikosozial baten programa bisitatu eta aztertu *in situ*.

Talde praktika. Talde bakoitzari proposatuko zaio, lehenengo praktikan diseinatutako programaren helburu antzekoak eta eremu berdinean ari den esku-hartze programa psikosozial bateko arduradunengana jo eta elkarrizketa bat egitea informazioa batzeko asmoz. Kurtso bukaeran, ikasleek taldeka, txosten labur bat aurkeztuko dute praktikaren inguruan.

Hirugarren praktika hau 2. Konpetentzia garatzeko diseinatua dago.

5. IRAKASGAIAREN PLANGINTZAKO KRONOGRAMA

Astea	D.L.	Datas	CM /EM (32 or.)	PA/IP (10 or.)	PO/OP (2 or.)	TA (6 or.)	S/M (10 or.)	PCA/LNP (0 or.)	Ordu ez p. (90or.)	Partziala	Entregable	Guztira
1	5	13/09 /09 13/09/13										
2	5	13/09/16 13/09/13										
3	5	13/09/23 13/09/27										
4	5	13/09/30 13/10/04										
5	5	13/10/07 13/10/11										
6	5	13/10/14 13/10/18										
7	4	13/10/21 13/10/25										
8	4	13/10/28 13/11/01										
9	5	13/11/04 13/11/08										
10	5	13/11/11 13/11/15										
11	5	13/11/18 13/11/22										
12	5	13/11/25 13/11/29										
13	3	13/12/02 13/12/06										
14	5	13/12/09 13/12/13										
15	5	13/12/16 13/12/20										
Totales												

6. EBALUAZIO-SISTEMA (TEORIA ETA PRAKTIKA)

A modalitatea:

A. Eduki teorikoen ebaluazioa (notaren % 50):

1. Galdera ireki laburrak eta/edo test erakoak. Kurtsoa bukatzean egingo da ofizialki ezarritako datan. Gehienez 3,5 punturekin baloratuko da.
2. Irakurgai gehigarrien laburpenen idatzizko edo ahozko aurkezpena (irakasle taldeak erabakitzen duenaren arabera arabera). Gehienez 1,5 punturekin baloratuko da.

B. Ariketa praktikoen ebaluazioa (notaren % 50):

1. Lehenengo praktika egin ahala ebaluatuko da modu jarraian. Azken puntuazioa (taldekide denentzat berdina) ebaluazio jarraia eta lanaren aurkezpenaren arabera ezarriko da. Gehienez, 4 punturekin baloratuko da.
2. Bigarren praktika gehienez 0,5 punturekin baloratuko da.
3. Hirugarren praktika gehienez 0,5 punturekin baloratuko da.
Ariketa hauek soilik ezarritako epean aurkeztuak badira ebaluatuko dira.

Irakasgaiaren azken nota, aurreko noten baturan oinarrituko da, beti ere, atal teorikoaren azterketan gutxienez 1.75 eko puntuazioa lortuz gero eta lehenengo praktikan 2 puntutakoa. Lehenengo deialdian ikasleak atal bakarra gainditzeko badu, lortutako notak hurrengo deialdirako gordeko zaizkio eta suspenditutako atalera soilik aurkeztu behar izango du. Lortutako notak ordea, ez dira hurrengo kurtsoetarako gordeko.

B modalitatea:

Eduki praktikoa eta teorikoen ebaluaketa (notaren %100): Eduki teorikoen galdera ireki laburrak eta ariketa praktikokoak barne hartzen dituen azterketa.

7. DOCUMENTAZIOA/BIBLIOGRAFIA

Oinarrizkoa:

- Alemán, M. C. eta Fernández-García, T. (2007). *Introducción a los servicios sociales*. Madrid: UNED.
- Blanco, A. eta Rodríguez-Marín, J. (Coords.) (2007). *Intervención psicosocial*. Madrid: Prentice Hall.
- Casas, F. (1996). *Bienestar social. Una introducción psicosociológica*. Bartzelona: PPU.
- Colegio Oficial de Psicólogos (1998). *Perfiles profesionales del psicólogo. Psicología de la Intervención Social*. Colegio Oficial de Psicólogos de España.
<http://www.cop.es/perfiles/contenido/is.htm>
- Fernández, I., Morales, J.F. eta Molero, F. (2011). *Psicología de la intervención comunitaria*. Bilbo: Desclée De Brouwer.
- Hernández, B. eta Valera, S. (2008). *Psicología social aplicada e intervención psicosocial* (2ª ed.). La Laguna: Resma.
- Cabanas, M. eta Chacón, F. (1997). *Intervención psicosocial y servicios sociales. Un enfoque participativo*. Madrid: Síntesis.
- Hombrados, M. I., García M. A. eta López, T. (2006). *Intervención social y comunitaria*. Málaga: Aljibe.
- Maya, I., García-Ramírez, M. eta Santolaya, F.J. (2007). *Estrategias de la intervención psicosocial. Casos prácticos*. Madrid: Pirámide.
- Montero, M. (2003). *Teoría y práctica de la psicología comunitaria*. Madrid: Paidós.
- Musitu, G., Herrero, J., Cantera, L.M. eta Montenegro, M. (2004). *Introducción a la psicología comunitaria*. Bartzelona: UOC.
- Sánchez, A. (2007). *Manual de psicología comunitaria. Un enfoque integrado*. Madrid: Pirámide.
- Serrano, I, eta Rosario, W. (1992). *Contribuciones Puertorriqueñas a la Psicología Social Comunitaria*. Puerto Rico: Edupr.

Osagarria:

- Chinman, M., Imm, P. eta Wandersman, A. (2004). *Getting to Outcomes 2004. Promoting accountability through methods and tools for planning, implementation, and evaluation*. Santa Monica: CA: RAND Corporation.
http://www.rand.org/pubs/technical_reports/TR101.html
- Doyal, L. eta Gough, I. (1994). *Teoría de las necesidades humanas*. Bartzelona: Icaria.
- KU Work Group on Health Promotion and Community Development (2012). *Community Tool Box*. Lawrence, KS: University of Kansas. <http://ctb.ku.edu/en/default.aspx>
- Reboloso, E., Fernández-Ramírez, B. eta Cantón, P. (2008). *Evaluación de programas de intervención social*. Madrid: Síntesis.
- Rubio, M.J. eta Varas, J. (2004). *El análisis de la realidad en la intervención social. Métodos y técnicas de investigación* (3. argit.). Madrid: CCS.
- San Juan, C. (1996). *Intervención Psicosocial: Elementos de programación y evaluación socialmente eficaces*. Bartzelona: Anthropos.
- San Juan, C. (2001). *Catástrofes y ayuda de emergencia: Estrategias de evaluación, prevención y tratamiento*. Bartzelona: Icaria.

Baliabideak internet-en:

- Grupo de Acción Comunitaria (GAC). <http://www.psicosocial.net/>
- Australian Centre on Quality of Life. <http://www.deakin.edu.au/research/acqol/index.php>
- Center for Public Policy Research. <http://cppr.ucdavis.edu/>

Center for Social Services Research (CSSR). <http://cssr.berkeley.edu/>
Community Psychology Research Team. <http://uregina.ca/hamptoma/>
Comunitarios CL. <http://www.comunitarios.cl/www/>
KU Work Group for Community and Health Development. <http://www.communityhealth.ku.edu/>
Oxford Social Research Group. <http://oxsrag.org.uk/index.htm>
Partnerships in Prevention Science Institute. <http://www.ppsi.iastate.edu/>
Prevention action. <http://www.preventionaction.org/>
Social Development Research Group (SDRG). <http://www.sdrq.org/>
Social Intervention Group (SIG). <http://www.columbia.edu/cu/ssw/sig/>
Social Interventions Research Group (SIRG). <http://www.newcastle.edu.au/centre/sirg/>
Social Research Centre. <http://www.srcentre.com.au/>
Social Services Research Group (SSRG). <http://www.ssrq.org.uk/index.asp>
Society for Community Research and Action. <http://www.scra27.org>

8. TUTORE-ORDUTEGIAK

Tutoretza ordutegia ezagutu ahal izango da hurrengo bideen bitartez

- Moodle ikasgela birtualean
- Bulegoko atean ikusgarri
- GAUR